

azpeitianzer?

udal aldizkaria

162. zenbakia
2013ko abendua

15 lanpostu berri

Urola Erdian enplegua indartzeko elkarlanean ari da Azpeitiko Udala Lanbiderekin. Eta emaitzak lortzen ari dira.



Euskara.
2013-2017
epealdirako Plana
onartu da.



Gazte lokalak.
Araudia osatzeari ekin
zaio herritarrekin
elkarlanean.


albistea eta erabakiak

ale honetan zer?

- 3 Albistea eta erabakiak
- 4 Euskara
- 6 Gazte lokalak
- 8 Iraurgi Berritzen
- 12 Merkataritza
- 13 Urkome sariak
- 14 Motxak
- 15 Agenda

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailletza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botika txandak

ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Abenduaren 21, 22, 26 eta urtarrilaren 2, 6 eta 17

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Abenduaren 31 eta urtarrilaren 3, 7, 11, 12 eta 14

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Abenduaren 27 eta urtarrilaren 1, 8 eta 16

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Abenduaren 24, 28, 29 eta urtarrilaren 9 eta 13

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Abenduaren 23, 25, 30 eta urtarrilaren 4, 5, 10 eta 15

aldundia



Zazpi proiektu, aukeratuta

Azpeitia, Azkoitia, Beizama, Errezil eta Zestoako herritarrek zazpi egitasmo onartu dituzte Gipuzkoako aurrekontu orokorretako 500.000 euro inbertitzeko. Mendi eta baserri bideak txukuntzeaz gainera, burujabetza energetikoa lantzeko plangintza bat ere egingo da, bai eta haur eta gazteentzat partaidetza programa bat, Lasao eta Zestoa arteko trenbide zaharraren egokitzapena ere, eta baita eskualdeko oroimen historikoa eta historia berreskuratzeko plangintzak ere.

Urria eta azaroa osoan partaidetza prozesu bat abian egon da Urola Erdiko bost herritan. Urrian, herri bakoitzean egindako batzarretan, internetez eta udalen bidez jaso ziren proposamenak guztira 124 izan ziren. Horietatik, azaroaren 6an, 30 hobetsi zituzten, Azkoitian egin zen eskualde batzarrean. 30 proposamen horiei dagokien txosten juridiko eta ekonomikoak egin zizkieten Aldundiko sail desberdinetako teknikariek. Zerrenda hori herri bakoitzeko bi kidek osatutako talde eragilearen esku geratu ziren, eta talde honek, azaroaren 28an, Azpeitian egin zen azken eskualde batzarrera eraman zituen. Batzar horren egitasmo bozkatuenekin behin-betiko zerrenda osatu zen.

Honako hau da behin betiko zerrenda:

- Mendietako bidezidorrak txukuntzea: 110.000 euro
- Burujabetza energetikorako plangintza egitea: 65.000 euro
- Haur eta gazteen parte-hartze programa osatzea: 45.000 euro
- Oroimen historikoa lantzea: 22.000 euro
- Eskualdeko historia berreskuratzeko plangintza egitea: 30.000 euro
- Baserri-bideak konpontzea: 150.000 euro
- Lasao-Zestoako trenbidearen egokitzapen lanak egitea: 78.000 euro.

erabakiak

Abenduaren 3an egindako Udalbatzan honako erabakiak hartu ziren:

1. Udalbatza Osoak 2013ko azaroaren 5ean egindako bilkurako akta onartu zen.
2. Herribideen inbentarioa aho batez onartu zen.
3. Azpeitiko Plangintza Oro-korreetan "4.3 Esclavas-Iturzu" eremuko Plan Berezia Bildu eta EAJ taldeen aldeko bozkekin onartu zen. Hamaikabatek kontra bozkatu zuen.
4. Agirre eremurako udal-etxebizitza alokatuen amortizaziorako dirulaguntza aho batez onartu zen.
5. Azpeitiko Udalaren eta Erlo Telebis-taren arteko hitzarmena aho batez onartu zen.
6. 2013. ekitaldiko aurrekontuan 5. kreditu aldaketaren berri eman zen.
7. Azpeitiko Udalean 2013-17ko epean euskeraren erabilera normalizatzeko plana behin behinekoz onartzea, V. plangintzaldirako helburuak fintzatzen dituen 86/1997 Dekretuak, apirilaren 15ekoak dioenari jarraiki, aho batez onartu zen.
8. Euskararen Nazioarteko Egunaren adierazpena aho batez onartu zen.
9. Indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egunaren inguruan Udalaren adierazpena ere aho batez onartu zen.
10. Abuztuaren 1eko gertaerak direla eta, EAJ-k aurkeztutako mozioa ez zen onartu, EAJ taldeka alde bozkatu arren, Bilduk kontra eta Hamaikabat abstenitu egin baitzen.
11. Galdera eta erreguak.



Azpeitiko Udalaren euskara, tontorrera bidean

2013-2017 epean indarrean izango den Euskara Plana onartu du Udalak.

azpeitiko Udalak Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an, onartu zuen Udala Barruko Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana. Udalaren Euskara Patronatuak eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) elkarlanean osatu dute Plana eta 2013-2017 epean indarrean izango da. "Urteak daramatzagu lan asko egiten Azpeitiko Udalean euskara gero eta gehiago erabiltzeko.

"2013ko lehen 9 hilabeteetan, Aldundira bidalitako dokumentuetatik % 90 euskara hutsean igorri zen"

Lan horren emaitzak jasotzen ari gara, adibidez, Azpeitiko Udaletik, 2013. urteko lehenengo 9 hilabeteetan, Gipuzkoako Foru Aldundira bidalitako dokumentu guztietatik % 90 euskara hutsean igorri zen, % 9 ele bietara (euskaraz eta gaztelaniaz) eta % 1 bakarrik bidali zen gaztelania hutsean. Udala langileek dute meritua eta ahalegina aitortu nahi diet", agertu du Euskara zinegotzia den Kontxita Martijak.

Egindako lan handia nabarmendu arren, oraindik egiteko asko ere badagoela gogoratu nahi izan du Martijak eta UEMAko Iratxe Ibarra Planaren nondik norakoak azaldu ditu. Horrela, Azpeitia oso herri euskalduna izanik, Udalak herritarrentzat eredu izan behar duela esan du Ibarrak.

Plan berria gauzatzeko orduan, Udalaren gaur eguneko egoeraren diagnostikoa izan dute abiapuntu. Eta, diagnostiko hori egiteko, "zerbitziburuekin aurrez aurreko elkarrizketak" egin dituztela azaldu du Ibarrak: "Ahalik eta errealistenak izateko eskatu zitzaizkien, egoera benetan nolakoa den garbi izatea garrantzitsua baita". Onartu den planak lau urterako helburuak jasotzen baditu ere, urtean urteko kudeaketa planak osatuko direla aurreratu du Ibarrak. Gainera, planaren garapena modu egokian zaintzeko jarraipen batzordea ere eratuko dute.

UEMAk bere baitan hartzen dituen udalak lau multzotan sailkatuta ditu, euskararen erabileraren mailari dagokionez:

- **Abian:** ele bietan funtzionatzera bidean, oraindik urrats handia egiteko dutenak kokatzen dira hemen.
- **Magalean:** nagusiki ele bietan modu orekatuan funtzionatu arren, tartean gaztelania hutsez ere funtzionatzen dutenak.
- **Gorabidean:** nagusiki euskaraz eta ele bietan (euskarari lehentasuna emanda) funtzionatzen dutenak.
- **Tontorrean:** oro har, salbuespenak salbuespen, euskaraz funtzionatzen dutenak.

Sailkapen hori kontuan hartuta, Azpeitia gorabidean dauden udalen artean dagoela esan du Ibarrak. "Emaitza ona da, herri handia dela kontuan hartuta".



"Onartu den planak lau urterako helburuak jasotzen baditu ere, urtean urteko kudeaketa planak osatuko dira"

Azpeitia gorabidean dauden udalen artean dago, "Emaitza ona da, herri handia dela kontuan hartuta"

Azpeitiko Udalaren diagnostikoaren emaitzetan "esanguratsuak egin zaizkidan" pare bat datu ere eman ditu UEMAko teknikariak: "Batetik, udal langileen arteko ahozko erabilera altuagoa izatea espero nuen, inguru hau oso euskalduna dela kontuan izanda. Eurek aitortu dute, ordea, erdadarako joera handia dutela, edo elkarrizketak euskaraz hasi eta erdaraz bukatzekoa, batik bat adin batetik gorakoaren artean. Bestetik, datu positibo bezala, Udala egin duen lana. Adibidez, ordenagailu guztiak euskaraz ditu, eta hori ez dut ikusi udal askotan".

Beraz, V. Plangintzaldiarekin "tontorrera iristeko pausoak" ematea izango da helburu nagusia eta horretarako honako pauso hauek jarraitu beharko ditu:

- Herritarrek argi izatea udalarekin dituzten harremanetan euskaraz jardun ahal izango dutela.
- Udalerrrian zabaldu beharreko agerietan ere euskara erabiltzea, beti ere arreta berezia jarritzaz hizkuntzaren kalitateari.
- Hedabideen aurrean egin beharreko adierazpenak euskaraz egitea.
- Ahozko harremanetan euskaraz jardutea, bai langileek euren artean, bai ordezkari politikoek euren artean, bai langile eta ordezkariak euren artean.
- Udalaren eta beste erakunde publikoen arteko harremanak euskara hutsez izan daitezen bermatzea, bai telefonoz, bai aurrez aurreko bilerak edo aurkezpenetan. Horretarako, alde biko hitzarmenak egitea sustatuko du Udala.
- Udala zerbitzu enpresa guztiekin harremanak euskaraz izatea, eta enpresek udalarekiko zein herritarrekiko izan ditzaketen ahozko zein idatzizko harremanei begira, ematen duten zerbitzuetan euskara kontuan har dezaten bermatzea.
- Udala berak antolatzen dituen prestakuntza jarduerak euskaraz izatea. Eta, udal langileek kanpo erakunderen batek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartu behar badute, jardura horiek euskaraz izan daitezen sustatzea.
- Udala dituen espedienteak eta dokumentu ereduak euskaraz egotea.
- Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzugailu automatikoz, bozgorailuz... emandakoak) euskaraz egongo direla bermatzea, herritarren hizkuntza eskubideei kalterik egin gabe.



Berritzen, indartzen, sendotzen

iraurgi Berritzen



azpeitiko Udalak, Azkoitikoarekin batera, bi eragile zituen bailarako sozio-ekonomia sustatzeko: Iraurgi Lantzen garapen agentzia (eta bere barruan Ezagutza Gunea) eta Loiola Berrikuntza Fundazioa. Bi eragile horiek elkarlanean Iraurgi Berritzen marka abiatzea erabaki zuten udalek udan, baliabideak optimizatu, koordinazioa hobetu, bikoizketak saihestu eta bailararen garapen sozio-ekonomikoari are bultzada handiagoa emateko.

Informazioa eta kontaktua:
943 85 11 00 eta
info@iraugiberritzen.net

Eta dagoeneko ekin dio ibilbide berriari Iraurgi Berritzenek.

Azpeitiarrei eta bailarako eragileei sozio-ekonomia arloan ahalik eta zerbitzu egoki, eraginkor eta osoena ematea du helburu marka berriak, eta xede horrekin hainbat atal eta alor ditu. Hemen, jarraian, Iraurgi Berritzenek Azpeitia eta azpeitiarrei eskaintzen dizkien zerbitzu horien argazki orokorra:

Enplegu orientazioa

Langabezian daudenentzat zein lanean egon arren etengabeko prestakuntzaren alde egiten dutenentzat enplegu orientazio atala du Iraurgi Berritzenek. Helburua argia da: lan bila dabiltzanei arreta pertsonalizatua eta berezitua eskaintzea, pertsona horien

enplegarritasuna hobetzeko, eta langabezian egon ez arren etengabeko prestakuntzaren alde egiten duten langileei, berriaz, etengabeko prestakuntza ematea.

Honako ekintza zehatzak eskaintzen

ditu: enplegurako eta autoenplegurako informazio eta orientazio zerbitzua, kualifikazio profesionala eta enplegarritasuna hobetzeko programak, eta enpresa, entitate eta erakunde publikoekin harremanak, langileak lan mundura txertatzea errazteko.

Enpresa lehiakortasuna eta berrikuntza

Eskualdeko enpresen lehiakortasuna, garapena eta berrikuntza sustatzeko lehiakortasun eta berrikuntza atala du Iraurgi Berritzenek. Atal horren funtzio nagusietako bat da eskualdeko enpresa bakoitzari, bere beharren arabera, lehiakortasun eta berrikuntza alorrean beharrezko zerbitzuak eskaintzea. Helburu horrekin, besteak beste honako

zerbitzuak kudeatzen ditu Iraurgi Berritzenek enpresentzat: lehiakortasun eta berrikuntzarako proiektuak, karrera amaierako proiektuak, internazionalizazioarako diagnosi eta bekak, finantziarioa lortzeko laguntzak, jabetza industrial/teknologikoak babestea...

Horrekin batera, eskualdearen lehiakor-

tasuna eta berrikuntza bultzatzeko hainbat proiektu ere bultzatzen ditu atal honek, besteak beste KIDETUZ programa, altzarigintza eta egurraren sektorearen dibertsifikazioa sustatzeko, edo AGRIPIR: teknologia berrien bitartez, eta mugaz bestaldeko kooperazioa sendotuz lehen sektorea indartzea du helburu, mugaz bestaldeko kooperazioa bultzatuz.

Ekintzailetasuna

Azpeitian eta eskualdean ekintzailetasuna sustatu eta babesteko ekintzailetasun alorra eskaintzen du Iraurgi Berritzenek. Helburua herritarren artean ekintzailetasuna bultzatzea da, enpresa bat sortzeko ideien bat duen edonori ideia hori garatzeko

aholkularitza eta laguntza eskaintzea.

Helburu horrekin, enpresa egitasmo bat martxan jartzeko beharrezkoak diren atala guztiak lantzen laguntzen die Iraurgi Berritzenek herritarrei: hasierako aholkularitza,

negozio plana eta bideragarritasun azterketa, erabiliko den forma juridikoa aukeratzeta... Horrez gain, egitasmo bat martxan jartzeko egun dauden diru-laguntzak eta finantziarioa aukera ezberdinak lortzeko bitartekari lanak ere egiten ditu.

Merkataritza

Iraurgi Berritzenen Merkataritza atalak helburu nagusi bat du: Azpeitiko eta Azkoitiko saltoki txikien salerosketak dinamizatzea eta sustatzea. Horretarako, sektore hori profesionalizatu eta garai berrietara egokitzeko formazioa eta bestelako programak jartzen ditu martxan, saltokietako kudeatzaileentzat. Horrez gain, Azpeitiko ingurune

komertziala hobetzeko ere lan egiten du atal honek, berreskuratze urbanistikoa bultzatuz. Helburu eta ekimen guzti horiek Bertan Azpeitiko merkatarien elkarrekin eta Udalarekin elkarlanean egin ditu, eta Gipuzkoako Bazkondeak, Foru Aldundiak edo Jaurilaritzak alor honetan dituen zerbitzuak ere bideratzen ditu.

Turismoa

Iraurgi Berritzenen beste eginbeharretako bat da Azpeitiko eta eskualdeko turismoa sustatzea. Turismo atalaren bidez egiten du hori, beti ere turismo alorrean aritzen diren eragile guztien arteko elkarlana indartuz eta Azpeitia eta gure bailara besteengatik bereizteko, eskualdeko ondare historiko, artistiko, kultural, natural eta gastronomikoan oinarritutako eskaintza landuz.

Eskaintza turistikoa lantzeaz gain, eskaintza hori bisitarien eskura jartzeaz ere arduratzen da Iraurgi Berritzen, eta

helburu horrekin Eskualdeko turismo bulegoa kudeatzen du eta turismo alorreko feria eta topaketetan parte hartzen, Azpeitia eta bailararen eskaintza gure mugetatik kanpo ere zabaltzeko.

Besteak beste, honako jarduerak jarri ditu martxan Iraurgi Berritzenen Turismo atalak:

- Azpeitiko gune historikoa eta parrokia ezagutzeko bisita gidatuak.
- Ignaziotar lurraldea.
- Bost geltoki historian.

Kontsumitzaileen bulegoa

Kontsumitzaileek euren eskubideak ezagutu eta eskubide horiek errespetatzen direla babesteko.

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa kudeatzen du Iraurgi Berritzenek. Bere helburua honakoa da: kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa, laguntza eta orientazioa eskaintzea, euren eskubideak behar diren bezela erabiltzeko eta gai horren inguruko kontzientziarioa lantzeko.

Horretarako, besteak beste, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kexu eta erreklamazioak erregistratzen ditu eta dagozkion erakundeari bidaltzen. Azpeitiko bulegoa Sindikatu Zaharrean dago, eta astelehen, asteazken eta ostiraletan egoten da zabalik, 10:00etatik 14:00etara.

Informazio gehiago: 943 15 71 93 edo omic@azpeitia.net

Ezagutza Sarea

Zer da zehazki Ezagutza Sarea?

Urola erdiko eragile publiko zein pribatuen arteko elkarlanerako sarea da. Ezagutzaren transferentzia eta kapacitazioa ditu oinarri, eta sarea osatzen duten kideen eta eskualdearen lehiakortasuna eta garapena ditu helburu.

Nork hartzen du parte?

Eskualdeko sektore ezberdinetako 27 enpresek, ikastetxe guztiek, eta Azkoitia eta Azpeitiko udalek eta Iraurgi Berritzenek.

Nola egiten du lan?

Parte hartzen duten kideek kontseilu bat osatzen dute eta hor erabakitzen dira sarearen helburuak, elkarlan proiektuak eta lantzeko moduak, beti ere eskualdearen garapenerako ikuspegi bateratu batetik. Sarea honela egituratzen da: enpresak, ikastetxeak eta erakundeak ataletako elkarlanerako gune bana dago eta gune horien arabera egiten dute lan.

Besteak beste, honako jarduerak ari da lantzen sarea: Sareko enpresen arteko bisitak antolatzen ditu, bertako produkzio eta gestio ereduak ezagutu eta elkarlanean berrikuntza proiektuak sustatzeko; bailarako ikastetxeak irakaskuntza metodologi berrietan prestakuntza proiektuan elkarlanean parte hartzen ari dira; eskualdeko erakundearen arteko elkarlana sustatzeko eskualdeko dibertsifikazio estrategia definitzen ari da, kanpo adituekin.

Eskualdean 15 lanpostu berri sortzeko bidean

Azpeitiko Udalak, Iraurgi Berritzenen bidez, eskaria egin du Lanbiden eskualdean 15 lanpostu berri sortuko lituzkeenak



Iaz antolatutako ikastaroetan parte hartu zuten ikasleak diplomak jaso ondoren.

3 eta 16 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, eta ume edo gazte bakoitzak bi beka jasoko ditu gehienez

azpeitiko egoera ekonomikoak kinka larrian jarraitzen du. Gero eta gehiago dira ERE-an edota langabezian aurkitzen diren azpeitiarrak, horrela, eta urriko datuen arabera, herritarren %17, 20a langabezian dago. Azken urteetako daturik txarrenak ditugu herrian.

“Egoera latza bizi dugu, gogorra. Gure lehentasuna enplegua sustatzea eta sortzea da eta horretan gaude buru-belarri. Tresna magorik ez dago, badakigu, baina elkarlana bidea da eta era horretan, Eusko Jaurlaritzakin batera, Lanbidek bideratuko laguntza bidez lanpostu berriak sortzeko eskaera eginda dugu”, agertu du Eneko Etxeberría alkateak.

Eskaera honekin, beraz, orain urtebete Urola Erdiko udalek abian jarritako Enplegu Planak pausoak ematen jarraitzen duela baieztatzen da. Izan ere, 2012ko Enplegu Planaren linea eta ildo nagusiak jarraitzen ditu eskaera honek.

“Gure lehentasuna enplegua sustatzea eta sortzea da eta horretan gaude bueu-belarri”

Eskaera hau Urola Ekiten proiektua bezala aurkeztu dute Urola Erdiko udalek eta ondorengo 5 proiektu hauetan banatzen da:

EkoBailara II. Ekoteknologia, ekonomia berdea eta jasangarritasuna tendentzia berrian kokatzen da. Proiektu honen baitan 8 lanpostu sortuko dira toki-jasangarritasuna bilatzen duten aktibitateetan; lehen sektorea bultzatu eta ingurugiroa eta ekonomia berdea oinarri dituzten ekintzetan.

FabrikaTu. Proiektu honek, bailarako estrategia den Fabrikazio aurreratua bultzatuko du. Bertan, tendentzia honen inguruko aktibitate berriak sortzeko aukera aztertuko dira, ezagutza eta Urola

Erdia bailarako konpetentzia industrialak oinarri bezala hartuz.

FormaTeU II. Formazio espezializatuan oinarritutako iazko proiektua da. Zahartzaroa, 3. adina eta ongizatea, Informazio eta komunikazio teknologiak eta Kudeaketa komertzialerako konpetentzien eta pymes-etarako internazionalizazioa ikastaroak eskaini ziren iaz eta orain, bilakaera bat izan dute ikastaroak egin zituztenei, edota ezagutza hauek izan ditzakenei, lanpostuak lortzeko aukera eskainiz. Ikastaroak, ordea, gai desberdinak jorratzen zituztenez, bi sub-proiektutan banatu da:

FormaTeU II-Inter. Kudeaketa komertzialerako konpetentziak eta pymes-etarako internazionalizazioa ikastaroarekin lotuta. FormaTeU II-TICs. Informazio eta komunikazio teknologiak ikastaroaren inguruan.

UroIEkinn. Bailarako ekintzailetasuna sustatzea izango du helburu nagusizat, ekonomia sozialeko aktibitate berriak sortzeko asmoz.

Lan bila dabiltzanei laguntzeko

Lanpostuak sortzeaz gain, Azpeitiko Udalak, Iraurgi Berritzenen bidez, eta Lanbiderekin elkarlanean, Enplegurako Orientazio Zerbitzua zabalduko du datozen egunetan. Lanik gabe dauden herritarrei edo enplegua hobetu nahi dutenei lagundu eta aholkularitza emateko zerbitzua izango da. “Langabezia da egun azpeitiarren eta bailarako herritarren arazo larrienetarikoa bat, eta horri aurre egiteko ahalik eta tresna baliagarria izatea espero du”.

Hala dio Eneko Etxeberría alkateak. Langabezia gutxitzea eta enpleguaren kalitatea hobetzea lehentasunezkoak dira udalaretzat, eta horretarako “eskuratu ditugun baliabide guztiak” erabiltzen ari direla adierazi du alkateak: “Enplegu Zentroa orain hasiko da martxan, baina horrez gain, bestelako ekimenak ere martxan jartzen jarraituko dugu, azpeitiarren egoera sozio-ekonomikoa ahal den moduan indartu eta sustatzen jarraitzeko”.

Enplegurako Orientazio Zerbitzua

Nori zuzenduta:

- Langabetuei edo langabezian erortzeko arriskuan daudenei.
- Enplegua hobetu nahi dutenei.
- Lan egiteko adina eduki eta modu aktiboan lana topatzeko asmoa dutenei.

Zer eskaintzen du?

- Herritarrei laguntzeko eta aholkatzeko lan orientazioko adituak.
- Internetera sartzeko aukera eskaintzen duten ordenagailuak.
- Informazio panelak.
- Liburutegi edo hemeroteka: aldizkari espezializatuak, material grafikoa...
- Banakako eta taldekako orientazioa:
 - Lanbiden alta ematea, eskaerak berritzea, datu pertsonalak aldatzea, enplegarritasuna balioestea...
 - Curriculum eta gutuna egiten laguntzea.
 - Lan elkarriketak prestatzea.

- Lan bilaketa aktiboa.
 - Gizarte trebetasunak / komunikazioa.
 - Autoenplegua.
- Alor horietan trebatzeko tailerrak ere eskainiko ditu.



Bulegoa

- Sindikatu Zaharreko 3 solairuan egoituko da.
- Ordutegia: astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan 9:00etatik 13:00etara eta astelehen, asteazken eta ostiraletan 15:30etik 18:30era.

Gazte lokalen erabilera arautzeko ordenantza osatzen hasi da Udala

Araudia zehazteko herritarren ekarpenak jasotzeko epea zabaldu da



Aritz Epelde eta Imanol Amenabar zinegotziak

Gazte lokalak arautzeari ekin dio Azpeitiko Udalak. Azken urteotako fenomeno baten aurrean aurkitzen gara, gure herrian eta ingurukoetan, gazteen aisialdia antolatze modu berri baten aurrean aurkitzen gara; gazteak, lagunekin biltzeko erreferentziazko gune propio bat bilatu eta topatu dute, gazte lokalak. Zentzu honetan, lokal bakoitzak dituen baldintzak eta ematen zaien erabilera, oso desberdina da. Errealitatea oso konplexua da. Errealitate berri baten aurrean gaude. Udalak argi du, lokalen eta bizilagunen arteko bizikidetza behar bezalakoa izan

dadin, guztion ahalegina beharrezkoa dela gazte eta bizilagunen harremanak hobetzeko.

“Lokalen eta bizilagunen arteko bizikidetza behar bezalakoa izan dadin, guztion ahalegina beharrezkoa da”

Hori dela eta, Udala sortzen diren edo sor daitezkeen arazoak konpontzen

ahalegintzeko gazte lokalen erabilera arautzea erabaki du. “Azken hilabeteotan, Udala Ordenantza bat osatzen ari da. Baina ordenantza osatzeko beharrezkoa ikusten du gazteekin eta adin txikikoen kasuan, beraien tutore edo gurasoekin bilerak erronda egitea, beraien ekarpen edo aportazioak jasotzeko eta eztabaidatzeko”, adierazi du Gazteria zinegotzi den Imanol Amenabarrek.

Gazteen lokala urte luzez arautu gabeko errealitatea izan da gure herrian, eta politika eremutik ikusita deserosoak diren arren arauketa hauek, gazteei

eskubideak eman behar zaizkiela argi du Udalak, baina eskubide horiekin batera, obligazioak edo betebeharrak ere badituzte, eta araudi berriak guzti hau zehaztu nahi du. Hau da, gazteek lokalak erabiltzeko eskubidea dute, eta eskubidea aitortuko die araudiak, baina eskubide orok bere obligazioak ere

baditu eta hori ere arautuko da.

Egitasmo honen xedea, batez ere gazteek aisialdi alternatiborako erabiltzen dituzten lokalen jardura eta elkarbizitza komunitarioak irizpideak arautu, erabiltzaileei eta auzotarrei sor dakizkiekeen traba eta arriskuak ekiditu

eta erabiltzaile zein auzotarren eskubide eta betebeharrak zehaztea da, horrela beraien baldintzak hobetuz.

Era berean aipatu, lokalek ezinbestekoan, gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintza batzuk ere bete beharko dituztela.

Ordenantza honen helburuak berriz honakoak izango dira:



Gazteekin egindako bilera udaletxeko 5. solairuan

a) Gazte lokalek gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte, hau da, bizigarritasun, higie eta erosotasunari dagozkienak eta baita segurtasunari eragin liezazkiekeenak ere.

b) Gazte lokalen erabilera eta auzotarren eskubideak bateratu behar dira, dagozkion neurri zuzentzaileak hartuta.

c) Gazte lokaletan sor daitezkeen arazoak murriztu eta bizikidetza bermatu behar da.

Honela, araudiak gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintzak, azpiegitura baldintzak, garbiketa

neurriak, gune publikoaren erabilera, zaratak eragindako eragozpenak saihesteko neurriak eta diziplina araubidea jasoko ditu agintarauak.

“Gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte, hau da, bizigarritasun, higie eta erosotasunari dagozkienak”

Bilerak dagoeneko egin dira eta Udal ordezkariak oso gustura daude gazte

eta gaztetxoaren gurasoek izandako parte hartzearekin.

Izan ere, herritar ugari etorri zen udaletxeko azken solairuan egindako bileratara. Zinegotziek araudiaren zirriborroaren aurkezpena egin zuten bilerak hauetan eta orain, 2 asteko epea ireki dute ekarpenak jasotzeko. Ekarpene hauek egiteko bi bide jarri ditugu: alde batetik, Gazte Informazio Bulegoa eta bestalde udaletxeko harrera”, zehaztu du Amenabarrek.

Udalak azpeitiarrak parte hartzera eta ekarpenak egitera animatu nahi ditu, araudi egoki eta denen gustukoa izan dadin.



bertan bizi erosi

Bertan Merkatarikari Elkarteak azpeitiarrak herrian behartan erostera animatu nahi ditu

data bereziak datoz eta Azpeitiko herritarrek erosketak egiten hasiko dira Gabonetara begira. Produktu desberdinak kontsumituko dira hurrengo asteetan zehar, janaria eta opariak izanik protagonista nagusienak. Bertan Merkatarikari Elkarteak azpeitiarrak herrian bertan erostera animatu nahi ditu, izan ere, beharrezko erosketak horiek Azpeitiko saltokietan aurki daitezke.

Hona hemen, Azpeitiko dendetan erosteko hainbat arrazoi:



1. Bertakoak direlako. Dendariak gure auzotarrak direlako eta gugandik gertu daudelako.

2. Tratu berezia. Herriko dendariak tratu pertsonala eta zuzena eskaintzen dizutelako.

3. Ezagutza. Ezagutzen zaituztelako, pertsona gisa hartzen zaituztelako eta zutaz arduratzen direlako.

4. Herrirako lanean. Herrian ekintzak sustatzen dituztelako eta herriko ekintzetan parte hartzen dutelako (kirol ekintzak, Gabonetakoak, bertako taldeei ematen dien babesa adibidez Antxieta egoitzan bizi eta bertan lanean aritzen diren Goye-neche Fundazioarekin...)

5. Bizia. Gure herriari bizitza eta kolorea ematen diolako; saltokirik gabe aspergarria eta tristea izango litzatekeelako Azpeitia.

6. Langabezia ekiditeko. Merkataritzarik gabe herritar asko lanik gabe geldituko liratekeelako.

7. Prezio justuak. Hornitzaile eta ekoizleak behar baino prezio merkeagoetara saltzera ez dituztelako behartzen.

8. Gertutasunagatik. Herriko dendak desagertzen baldin badira momentu batean, di-da, bertatik bertara erosteko aukerarik ez duzulako izango.

9. Duintasuna. Herri humanoagoa eta duinagoa nahi dugulako.

Hirugarren Urkome Sariak irabazleak dituzte jada Landa eremua indartzeko 7 proiektu berritzaile saritu dituzte



Aurtengo leihaketako irabazleak

Hona hemen saritutako proiektuak:

Liztor beltzaren habien suntsiketa (Irekia-bozka bidezko sari berezia): Liztor Asiatikoari aurre egiteko zerbitzu profesional bat eskaintzeko egitasmoa da, eta enpresa bat sortzeko egitasmo landua da. Egilea Iñigo Amezuza da, eta www.urolakostaonline.com on line dendako produktuez osatutako lotea irabazi du.

Amalur (Iraurgi Berritzenek eta eta Urola Kostako Udal Elkarteak amankomunean ematen duten saria): Landa eremuaren biziberritzearen eta laguntza pertsonala eskaintzearen bidez, langabezian eta emantzipazio prozesuan dauden gazteen lan munduratzeari eta baserrietan bakarrik bizi diren adinekoei gizarteratzea uztartzen dituen proiektua da. Egileak Ainhoa Elorza, Maite Gorrotxategi, Itziar Aginagalde eta Ane Otaegi dira, eta 2.000 euroko diru-saria jaso dute.

Arrautza ekologikoen ekoizpena/salmenta (Nekazaritza jardueraren garapena ataleko saria): Arrautza ekologikoen produkzioa

eta salmenta izango dira jarduera honen ardatzak eta ingurune natural eta ziurtagiri ekologikoa izendatzen dituen ezaugarrien arabera ekoizpena jarraituko dute. Egileak Jon Arrue eta Ane Aranburu dira, eta 2.000 euroko diru-saria jaso dute.

KI Ur zikinen harazketa eta berrerrabilpenerako modulua (Landa eremuetako bizi kalitatearen hobekuntza ataleko saria): KI deituriko modulu hau, etxebizitzetako ur zikinak arazteko pentsatuta dago. Gure lurraldeko heren bat landa eremua da eta, ondorioz, sare publikora lotzeak esfortzu ekonomiko handia eskatzen du. Horren aurrean, sare deszentralizatu bat osatzeko aukera eskaintzen du. Kimu Bat enpresa da proiektuaren egilea, eta 2.000 euroko diru-saria jaso du.

Haize errota: haizea, ura, sua, lurra eta eguzkia. (Aktibitate ekonomikoaren dibertsifikazioa ataleko saria): Autokontsumorako haize errota bat jartzean datza proiektuak; ustiatzeko kostuak gutxitzeko. Egi-

hirugarren Urkome Sariak irabazleak jakinaraztera eman dituzte jada. Urola Kosta eskualdeko landa eremua indartzeko asmoz aurkeztu behar zituzten proiektuak eta arduradunek agertu dutenez, 26 proiektu aurkeztu ziren guztira, eta horietatik, 7 izan dira sarituak. "Pozez jaso ditugu proiektu kopurua eta hauen maila altua. Eskerrik asko partaide guztiei beraz", agertu du Urkomeko presidentea den Manuel Labak.

"Pozez jaso ditugu proiektu kopurua eta hauen maila altua"

leak Juan Urkizu eta Amaia Irazusta dira, eta 2.000 euroko diru-saria jaso dute.

Landa jatetxea (Landa eremuak betetzen dituen funtzioen zehaztapen eta errekonozimendu ataleko saria): Produktuen transformazioa egiten duen ustiatzeki batek bere produktuekin eginiko menuak eskaini nahi ditu. Baserria-produktua-produkzioa-errestaurazioa-turismoa eta aisialdia. Egilea Agurtzane Subijana da eta 1.000 euroko saria jaso du.

Bisita tailer gidatuak (Landa eremuak betetzen dituen funtzioen zehaztapen eta errekonozimendu ataleko saria): Baserriaren dibertsifikazioan aurrerapauso bat emanez, bisita tailerrak eskaini nahi dira, ekoizten diren ekoizpen arlo bakoitzari lotuta: baratxagintza, Errezil-sagarra, hegaztiak eta ogigintza. Egilea Joxe Ramon Agirre da, eta 1.000 euroko saria jaso du.

Azken bi sariak 1.000 eurokoak izan dira, ex-aequo direla ebatzi duelako epai-mahaiak.

Oihane eta Naiara Larrañagak egingo dute San Sebastian jaietako karroza



etchola Atelier enpresako Oihane Larrañaga eta Naiara Larrañaga izango dira 2014ko haurren danborradako karrozaren egileak. Karrozaren gaia Imanol Elias izango da, izan ere, Azpeitiko idazlea, historialaria, eta herriko kronista ofiziala urtarilean zendu zen. "Aurtengo lehiaketara 5 proiektu aurkeztu dira guztira, eta Batzordeko kideek aho batez hartu dute erabakia. Izan ere, proiektu honek Udalak eskatutako betebeharrak jasotzen ditu, eta 2014ko karrozan goraipatu behar den gaia modu egoki eta profesionalean azaldu dute. Imanol Eliasen sentimendua eta izaera bizitzan zehar, nahiz ikerketzaile, nahiz idazle lanak modu eguneratu batean aurkeztu dituzte". Modu honetan, bi azpeitiar gazteek 1.500 euroko saria jasoko dute.

Izarraitz Igeriketa eta Lagun Onak Txirrindulari elkarteek konpromisoak hartu dituzte hondakinen kudeaketarako



hondakinen birziklapen tasak hobetze bidean 'Gugandik hasita' kanpainaren bat egin dute Izarraitz Igeriketa eta Lagun Onak Txirrindulari elkarteek. Modu honetan, 'Gugandik hasita' kanpainan erakutsitako konpromisoari loturik, eta Udalak abiaraziko dituen urratsekin batera, hainbat neurri hartuko dituzte aurrerantzean: besteak beste, bilketarako bitarteko egokiak eskainiko dira, bilketa egokia izan dadin euskarri komunikatiboak helaraziko zaizkie edota hiru hilabeteen behin bilera bat egingo dute gaiaren inguruko gertakariak eta jarraipena egiteko.

Eskola kirolean atletismoa sustatuz



azpeitiko Udalak eta Iraurgi, Ikasberri eta Karmelo Etxegarai ikastetxeek eskola kirolean atletismoa sustatzeko hitzarmena sinatu dute gaur, osteguna. Modu honetan, atletismoa praktikatu nahi duten ikasleei, herriko ikastetxe zein udal instalazioen erabilpen amankomuna eta irekia ahalbideratzea bilatu nahi da. Horrela, ikastetxe eta kirol klubak izan ohi duen eskaintza partikularra, herri mailara hedatuko da, ikastetxeetako instalazioen eta monitoreen erabilera amankomunarekin indarrak batuz.



agenda

abendua - urtarrila

21, larunbata

SANTO TOMAS JAIK

10:00etan IZARRAITZ TXISTULARIEN ESKUTIK diana kaleetan zehar.

10:30etan Frontoitxikian eskuzko pilota partida finalak: (Ilunpe)

- 1.- Aurrebenjaminak
- 2.- Benjaminak
- 3.- Alebinak
- 4.- Infantilak
- 5.- Kadeteak

Udal Musika Bandaren kalejira

Ordu berean, Elciegoko Gaiteroak ibiliko dira kaleetan zehar

12:00etan XXXI. Antzerki Topaketarako Sari Banaketa

AZPEITIKO UDAZKENEKO AZOKA BEREZIA

-BASERRIKO PRODUKTOAK-

Goiz osoan zehar Azoka Plazan izango da erakusketa hau.

AIZKOLARI, HARRIJASOTZAILE JAIALDIA: PLAZA NAGUSIAN

Plaza Nagusiko kioskoan BERTSOLARIK,

Itsasiko Ttuntturroen eta Musika Eskolako soinu-joleen kalejira

13:00etan Erraldoiak, Buruhandiak eta Dultzainariak kaleetan zehar.

18:00ean DANTZA-SUELTO TXAPELKETA

SANAGUSTIN KULTURGUNEAN

Gazteen XIII. Dantza Sueltoke Azpeitiko Txapelketa arratsalde/iluntze aldera MUSIKA EMANALDIA KALEETAN ZEHAR
Urtero bezala, egun osoan zehar, txorixoa eta taloa jateko aukera izango da horretarako egongo diren postuetan.

22, igandea

17:00 – 20:00 artisauen azoka, Sanagustinpen.

18:00 Julian Barrenetxea abesbatza / Gabon kantak, Sanagustin kulturgunean.

Abenduak 23, astelehena

11:00-13:00 / 17:00- 20:00: artisauen azoka, Sanagustinpen.

19:00: Tuba Ensemble, Sanagustin kulturgunean.

Abenduak 24, asteartea

10:00-20:00 Baserritarren azoka, Plazan

10:30 Olentzero tallerrak (marrazkia, eskulangintza...), Sanagustin kulturgunean.

11:00-13:00 / 17:00- 20:00 artisauen azoka, Sanagustinpen.

12:30 Mari Domingin, Olatzko Amaren Plazan.

18:00 Olentzero, Plazan.

Abenduak 25, asteazkena

13:00: Azpeitiko Musika Banda, Sanagustin kulturgunean.

Abenduak 26-Abenduak 30 Urtarrillak 2-4

16:00 – 20:00: Gabonetako Pin Parkea (2€), Izarraitz pilotalekuan.

Abenduak 27, ostirala

10:00-13:00 / 16:00-20:00 Elkar-ekin: Haurrentzat Elkartasun Azoka. Iraurgi Ikastetxea: Bigarren eskuko jostailuen azoka. Artisauek. Baserritik.com. Khamar Saharar herriaren aldeko elkar-tea... Berdura plazan.

17:00: Baserritarren azoka, Sanagustinpen.

Abenduak 28, larunbata

10:00-14:00 / 16:00-20:00 Elkar-ekin: Haurrentzat Elkartasun Azoka. Iraurgi Ikastetxea: Bigarren eskuko jostailuen azoka. Baserritarren azoka (goizez bakarrik) Baserritik.com. Khamar Saharar herriaren aldeko elkar-tea... Berdura plazan.

12:00: Maria Jesus Arregiren biografia liburuxkaren aurkezpena (UZTARRIA), Sanagustin kulturgunean.

23:00: Kontzertua: DARK CODE eta SUTA GAR, Sanagustin kulturgunean.

Abenduak 29, igandea

18:00: Azpeitiko Kultur Mahaiko Oho-rezko Bazkidea ekitaldia, Sanagustin kulturgunea.

Urtarrillak 3, ostirala

17:00 – 20:00: Elkar-ekin + XJ Auzolan: Haurrentzat Elkartasun azoka. Xanjuandean.



ONDO PASATU SANTO TOMASAK 2013

Azpeitiko Udazkeneko Azoka Berezia, dantza txapelketa, musika, buruhandiak, txorizoa, bertsolariak, pilota partidak... egun guztian zehar herriko kaleetan



Azpeitiko Udalak dei egiten dizue azpeitiar guztiei eraso sexisten aurrean jarrera aktiboa har dezazuen. Eraso sexisten aurrean 112 eta 943 151313.

